



## BEASAIN INSTITUTUA

### 3.- ELKARBIZITZA ARAUAK EZ BETETZEA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Elkarbizitzako arauak ez betetzea, beti gutxienez, jokabide desegokitzat hartuko da. Elkarbizitza hausten duten jokabideak, beti berehala, zuzenduko ditu irakasleak, ondoren dagokion prozedura jarraitu arren. Hutsegite hori elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da, hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten badie; edo elkarbizitzari kalte larria eragiten diona haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira. Azken bi kasu hauetan, zuzendaritzak hartuko ditu dagozkion neurri zuzentzaileak.

Neurri zuzentzaileak, ahal den neurrian, hezitzaileak izango dira, proportzionaltasuna zainduko dute eta adiskidetzea izango dute helburu.

### **\*\*ERANSKINAK IKUSTEKO\*\***

**JOKABIDE:** Justifikatu gabeko puntualtasun eta bertaratze hutsegiteak.

NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA
Tutoreari ez etortzearen berri eman.	Irakasleek justifikatu gabeko hutsegiteak erregistratuko dituzte einikan (DBHn) eta koaderno digitalean (Batxilergoan), tutoreari jakinaraziz.
Tutoreak ikaslearen klasera ez etortzearen berri emango die gurasoei edo legezko tutoreei .	<p><b>DBHn:</b> Justifikatu gabeko 1. hutsegitea egiten dutenean tutoreak gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazi egingo die. Horretarako tutoreak erabiliko du ikasleen agenda, telefonoa, posta, posta elektronikoa.</p> <p>2.zuritu gabeko hutsegitearekin l.eranskina irakasleak beteko du.</p> <p>Ikasleari l.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du. Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kpoia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.</p> <p>Aldiz, <b>Batxilergoan</b> tutoreak ikaslearen klasera ez etortzearen berri emango die gurasoei edo legezko tutoreei hilabetean 4 huts, justifikatu gabeak egin ondoren, buletinean adierazteaz gain Horretarako erabiliko da telefonoa, posta, posta elektronikoa...</p>
Zuritu gabeko hutsegiteen errepikapenak ebaluaketa positiboa izateko eskubidearen galtzea ekar dezake	Batxilergoan: Ikaslea ebaluatua izan arren, ez du kalifikazio positiborik jasoko baldin eta zuritu gabeko 8 hutsegite edo gehiago baditu 4 orduko irakasgaietan, 6 hutsegite 3 ordukoetan eta 4hutsegite 2koetan Buletinean gainditu gabea jarriko zaio (zergatia ohar baten bidez adieraziz). Beraz, dagokion errekupeazioa egin beharko du mintegiak erabakitako moduan : azterketa, lanak edota bestelako neurri bereziren bat.
Puntualtasun hutsegiteek jokabide desegokia osa dezakete.	<p>Batxilergoan mintegiaren irizpidea jarraituko da.</p> <p>DBHn: 3 berandu astean egiten baditu tutoreak gurasoei jakinarazi egingo</p>

	<p>die.</p> <p>4.beranduarekin I. eranskina beteko da.</p> <p>Irakasleak ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du.</p> <p>Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.</p>
--	---

**JOKABIDE:** Ikastetxeko edo bertako edozein kideren materialari narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean

NEURRI ZUZENTZAILEAK	Prozedura
<p>Zerbait txikitzen bada, erabilera desegokiagatik, egin duenak ordainduko du. Zein izan den jakin ezean, klase osoa izango da erantzule.</p>	<p><b>Zein izan den argi dagoenean</b> I.Eranskina beteko da .            Irakasleak ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du.            Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio</p> <p><b>Zein izan den jakin ezean,</b> gurasoei edo legezko tutoreei idatzi informatiboa bidaliko zaie.            Horretarako erabiliko da ikasleen agenda ( DBHn), telefonoa, posta, posta elektronikoa...</p> <p>Bi kasuetan honen berri ikasketa- buruari nahiz tutoreari emango zaie.</p>
<p>Klase bateko txikizioak beste klase bateko ikasleek eragingo balituzte, Egin duenak/dutenak (edo nor izan den jakin ezean eremua erabili duenak/dutenak) ordaindu beharko du/dute.</p>	<p><b>Zein izan den argi dagoenean</b> I.Eranskina beteko da .            Irakasleak ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du.            Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.</p> <p><b>Zein izan den jakin ezean,</b> gurasoei edo legezko tutoreei idatzi informatiboa bidaliko zaie.            Horretarako erabiliko da ikasleen agenda ( DBHn), telefonoa, posta, posta elektronikoa...</p> <p>Honen berri tutoreari emango zaio, honek Ikasketa-buruari adieraz diezaion</p>
<p>Gurasoei edo legezko tutoreei ordainketaren berri emango zaie.</p>	<p>Horretarako telefonoa, posta edo `posta elektronikoa.</p>
<p>Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da</p>	<p>Ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>

**JOKABIDE:** Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea.

NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA
----------------------	-----------

Ikasleari adierazi behar zaio irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa bete behar duela.	
Betetzen ez duenean, agindu emailea eta ikaslea bilduko dira eta gertatutakoaren inguruan hausnarketa egingo dute.	Bilera ez da edozein unetan, edozein lekutan eta edozein modutara egingo (komenigarria ikusten da, besteak beste, atsedenaldia horretarako erabiltzea). Bakoitzak bere ikuspegia azaldu beharko du eta adostasun batera iristen saiatuko dira. Nahi izanez gero, kontratua sina daiteke.  Tutoreari bileraren berri emango zaio.
I. eranskina bete	Irakasleak edo agintari akademikoak bete eta gero, ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du. Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.
Bileraren ondoren egoera errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da.	Ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE: Hezkuntza komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezeko jarrera, keinu edo hitzak.</b>	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Dagokionari barkamena bihotzez, modu pribatuan edo/eta modu publikoan (egoera baloratu ondoren), eskatuko dio.	Modu publikoan: barkamena eta hausnarketaren emaitzak bere gelaren aurrean, kaltetua/k bertan dela/direlarik, adierazi beharko ditu.
Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie.	Horretarako telefonoa, posta edo posta elektronikoa erabiliko da.
I. eranskina bete	Hezkuntza komunitateko kideak bete eta gero, ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du.  Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.
Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da .	Ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE: Debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.</b>	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Ikaslea ohartarazi.	Izandako jokabide desegokiari eta bere ondorioei buruzko hausnarketa egin beharko du irakasleak.
Errepikatzen denean, dagokion gailua ikasleari eskatuko zaio	Irakasleak jasotako gailua zuzendaritzan entregatu. Ikasleak gailua zuzendaritzatik jaso ahal izateko, horretarako prestatutako idatzia ekarri beharko luke gurasoek edo legezko ordezkariak sinatuta.  Aldi berean, zuzendariak edo ikasketa buruak gurasoei edo legezko ordezkariari deituko die.
Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren	ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.

kontrako jokabidetzat hartuko da.	
<b>JOKABIDE: Ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.</b>	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Ikaslea ohartarazi.	Izandako jokabide desegokiari eta bere ondorioei buruzko hausnarketa egin beharko du ikasleak. Dagokionari barkamena bihotzez eskatu.
I. eranskina bete	Irakasleak bete eta gero, ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du. Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.
Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie.	Horretarako telefonoa, posta edo posta elektronikoa erabiliko da.
Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da.	ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE: Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea.</b>	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Egindako kalteak eragindako egoera argitu.	
Ikaslea ohartarazi.	Izandako jokabide desegokiari eta bere ondorioei buruzko hausnarketa egin beharko du ikasleak. Dagokionari barkamena bihotzez eskatu.
Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie.	Horretarako telefonoa, posta edo posta elektronikoa erabiliko da.
I. eranskina bete	Hezkuntza komunitateko kideak bete eta gero, ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du.  Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.
Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da.	ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE: Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea.</b>	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Azterketa, proba edo ariketa hori automatikoki gainditu gabe geratuko da.	Kopiatzeko erabili dena irakasleak jasoko du, ahal bada azterketa, proba edo ariketarekin batera.
Egoeraren inguruko hausnarketa egin beharko du ikasleak, zintzotasun akademikoaz jokatzeko, esfortzu pertsonalerako eta baimendutako materiala, soilik, erabiltzeko beharra ikusiz.	Irakasleak ikaslearekin hitz egingo du.
Egoera errepikatuko balitz, ikasgai berean eta ikasturte berean, ikasgaia, kurtso osorako, gainditu gabe geldituko litzaioke. Ez luke ikasgaia ohiko deialdira arte berreskuratzeko aukerarik izango.	Irakasleak I.eranskina beteko du. Irakasleak bete eta gero, ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du. Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.

Berrito errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da.	ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE: Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea.</b>	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Sartzeko baimenik ez dutenak berehala kanporatuak izango dira.	
Ikasleak egindakoaren inguruan hausnarketa egin beharko du.	
Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie, egoerak honela eskatzen badu.	Horretarako telefonoa, posta edo posta elektronikoa erabiliko da.
I. eranskina bete, egoerak honela eskatzen badu.	Irakasleak bete eta gero, ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du. Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.
Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie.	Horretarako telefonoa, posta edo posta elektronikoa erabiliko da.
Berrito errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da.	ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE: Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.</b>	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Dagokionari barkamena bihotzez, modu pribatuan edo/eta modu publikoan (egoera baloratu ondoren), eskatuko dio.	Modu publikoan: barkamena eta hausnarketaren emaitzak bere gelaren aurrean, kaltetua/k bertan dela/direlarik, adierazi beharko ditu.
Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie, egoerak honela eskatzen badu.	Horretarako telefonoa, posta edo posta elektronikoa erabiliko da.
I. eranskina bete, egoerak honela eskatzen badu.	Irakasleak bete eta gero, ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du. Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.
Berrito errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da.	ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE: Mugikorra eta antzeko tresnak egoitza barruan, baimenduta dauden zonaldeetatik kanpo, itzalita eta gordeta ez edukitzea, irakaslearen berariazko baimenik izan ezean.</b>	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Horrela suertatuko ez balitz, eta gordeta duela joko balu, lehenengo abisuan irakasleak ikasleari itzali eta gordetzeko esango dio.	
Egoera errepikatuko balitz irakasleak ikasleari tresna eskatuko dio.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleak tresna itzalita jasoko du eta, klasea bukatzean, zuzendaritzan entregatuko du.</li> <li><b>Hurrengo egunean ( inoiz ez egun berean),</b> ikasleak, tresna zuzendaritzatik jaso ahal izateko horretarako prestatutako <b>idatzia</b> ekarri beharko luke gurasoek edo legezko ordezkariak sinatuta.</li> <li>Egoerak hola eskatzen badu, zuzendariak edo ikasketa</li> </ul>

	buruak gurasoei edo legezko ordezkarietara deituko die.
Aldiz, gordeta ez balu, zuzenean irakasleak ikasleari tresna eskatuko dio.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleak tresna itzalita jasoko du eta, klasea bukatzean, zuzendaritzara entregatuko du.</li> <li><b>Hurrengo egunean ( inoiz ez egun berean),</b> irakasleak, tresna zuzendaritzatik jaso ahal izateko horretarako prestatutako <b>idatzia</b> ekarri beharko luke gurasoek edo legezko ordezkarietara sinatuta.</li> <li>Egoerak hola eskatzen badu, zuzendariak edo ikasketa buruak gurasoei edo legezko ordezkarietara deituko die.</li> </ul>
Berrito errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabideetat hartuko da.	ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE:</b> Eskola-eremuaren barruan tabakoa kontsumitzea.	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Eskola-eremuaren barruan erretzea guztiz debekatua dagoenez zigarroa itzaltzeko esango zaio.	
Bigarrenetan, I. eranskina bete	Irakasleak bete eta gero, ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du. Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.
Berrito errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabideetat hartuko da.	ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE:</b> Eskola-eremua zikintzea.	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Zikindutakoa garbitu egin beharko du ikasleak. Ezin bada, egoera konpontzeak suposatutako gastua ordaindu beharko du.	
Egoera errepikatuko balitz, eskola-eremuari dagokion zatiren bat garbitu beharko du ikasleak.	
Izandako jokabide desegokiari eta bere ondorioei buruzko hausnarketa egin beharko du ikasleak.	
Berrito errepikatzen bada I. eranskina bete.	Irakasleak bete eta gero, ikasleari I.eranskina eman eta biharamunean gurasoen edo legezko tutoreen sinadurarekin itzuli beharko du. Sinatuta ekarri ondoren, irakasleak bi kopia egingo ditu, bat tutoreari eta bestea ikasketa buruari emango dizkio.
Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie. Faktura pasatuko zaie horrela badagokio.	Horretarako telefonoa, posta edo posta elektronikoa erabiliko da.
Berrito errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabideetat hartuko da.	ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.
<b>JOKABIDE:</b> Norberaren betebeharren beste edozein ez –betetze; bizikidetzaren kontrako jokabideak ez badira edo bizikidetzari kalte larria eragiten ez badiote	
<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK</b>	<b>PROZEDURA</b>
Dekretuak adierazten duen moduan, neurri	

<p>zuzentzaileak egindakoaren inguruko hausnarketa, onarpena dagokionaren aurrean, egindakoarekin lotura duen ekintzaren bat eta, ahal den neurrian, egindakoaren konponketa bilatuko du.</p>	
---	--